

HITZOKEI

Deskribapena: Google-en “hitzokei” hitza idazten denean bertan agertzen dena ikusten da bideoan eta bilatutako emaitzetan “hitzokei”en sakatuta, bertako webguneko irudiak ikusten dira.

Kike (off ahotsa): Teknologia berriei buruz ari garenez, jakin ezazue interneten barrena euskararekin jolastu nahi baduzue “Hitzokei” aukera aproposa duzuela.

Deskribapena: Kike Igeldon agertzen da.

Kike: “Webgunean, gainera, hiru mila eta zazpiehun definizio inguru aurki ditzakezue eta baita zuek asmatutako hitzak eta definizioak sartu ere. Esate baterako, “kiwipedia”(@Kapittanttan) frutazale dislexikoendako entziklopedia digitala. Edo “auskalopitekus” (@ikerlauroba) garai ezezaguneko gizakia. Edo hirugarren hau: “jira birra” (@josunestilist) garagardo batzuren ondoren etxerako bidean hartzen den ibilera ez-lineala.”

Deskribapena: Berriemaileen musika entzuten da.

Kike: “Ui! Berriemaileak!”